

SARRERA

Gure koadrilan egun bat aspertuta geundela, ezer egiteko ez geneukala, negozio baten bila joateko ideia izan genuen. Gazteentzako zerbitzuak eskaintzea erabaki genuen. Zerbitzu horiek haien olgetarako da. Gaur egun dagoen arazo nagusia da, nerabeak ez dutela ekintza nahikorik asteburuan egiteko.

Gure proiektuak guzti hori konpontzea nahi dugu, horretarako lokal bat alokatuko dugu zeinetan nerabeak denbora pasa ahal duten, herritik atera gabe.

Lokalean futbolina, billarra, ping-pong, eta air jokey mahaiak izango ditugu, hau guztia inskripzioa ordaindu ostean doainik izango da gure bezeroentzako, eta hauek parte hartuko dute antolatuko ditugun lehiaketetan. Lehiaketa guztiak sari bat izango dute.

Honetaz gain , monitore espezializatu batzuen laguntzarekin irteerak ere antolatuko ditugu. (mendira, hondartzara , arrisku kirolak praktikatzera)

